

FAMILIAK, AZL-AK ETA BESTE HEZKUNTZA-ERAGILE BATZUK. DIAGNOSTIKOA

10.3 TRESNA. IKASTETXEAREN DIAGNOSTIKOA

Irakurri arretaz ondorengo baieztapen guztiak, eta baloratu zure adostasun-maila, 1etik (batere ados ez) 4ra (erabat ados).

AUTONOMIA PERTSONALA ETA INDEPENDENTZIA EKONOMIKOA				
Etxeko esparrua				
20. Ikastetxean, autonomia lantzen da: jantziak, premia fisiologikoak, garbitasuna, gauzak eta jostailuak jasotzea, zaintzera jolastea, askotariko eta berdintasunezko familietara jolastea, etxeko esparruko berdintasuna erakusten duten ipuinen eta abestien ekarpena egitea eta ikasgela gune komun gisa zaintzea (Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza).	1	2	3	4
21. Ikastetxean, emakumeek gainerako pertsonen zaintzan egiten duten lana agerian uzten da, eta gizon zaintzaileak aurkezten eta ezagutzera ematen ditut.	1	2	3	4
22. Etxean egin ditzaketek ekintzak aztertzen dira ikasleekin: plater sinpleak prestatzea, mahaia jasotzea, harrikoa egitea eta abar.	1	2	3	4
23. Familietan etxeko lanak nork egiten dituen aztertzen da ikasgeletan, eta desberdintasunak agerian jartzen ditut (nork zer egiten duen, familiako gizonetako eta emakumeetako etxeko lanetan ematen duten denbora eta abar).	1	2	3	4
24. Enpatia pertsonen zaintzarako oinarri gisa lantzen da, ikasgela tratu oneko leku bihurtzeko.	1	2	3	4
25. Etxeko lanak ikastearekin eta egitearekin zerikusia duten proiektuak proposatzen dira ikastetxean: janaria, higiene pertsonala, jantziak, guneen higiena, ordena, erabilera publikoko materialen zaintza eta ikasgela (espazio jasangarri gisa).	1	2	3	4
26. Honako gai hauei buruzko ikerketa- eta azterketa-proiektuak proposatzen dira ikastetxean: lanaren sexu-banaketaren arazoak, produkzio-lana/ugalketa-lana, inguruko pertsonen eta mendeko pertsonen zaintzari lotutako erantzukizunak, aitatasun erantzunkidea eta berdintasunezkoa, borondatezko amatasuna.	1	2	3	4
27. Bizitza autonomo eta independente bati aurre egiteko estrategiak lantzen dira ikasgelan: eguneroko biziraupena, alokairuak, bankuak, argia, ura, gasa, gizonen eta emakumeen erantzunkidetasuna.	1	2	3	4
AUTONOMIA PERTSONALA ETA INDEPENDENTZIA EKONOMIKOA				
Lanbide-esparrua				
28. Ikasgelako materialetan agertzen diren eta gizonen eta emakumeen egiten dituzten lanbideak aztertzen dira, eta lanbideei lotutako berdintasunezko erreferenteak ematen dira.	1	2	3	4
29. Emakumeen lanbide-arloan eta arlo akademikoan estereotipoak apurtzeko izan dituzten eta dituzten zailtasun historikoak aztertzen dira ikasgeletan.	1	2	3	4
30. Esparru bakoitzean aitzindariak izan diren emakumeei buruzko ikerketa- eta azterketa-proiektuak proposatzen dira ikastetxean, eta lanbide-arloko berdintasun-erreferenteak aurkezten dira.	1	2	3	4
31. Lanaren sexu-banaketari, ikasketen eta lanen aukeraketari eta zenbait kontzeptuari (hala nola soldata-arrakala, kristalezko sabaia eta amatasun- eta aitatasun-baimen berdina eta besterenezinak) buruzko ikerketa- eta azterketa-proiektuak proposatzen dira ikastetxean.	1	2	3	4

32. Familian (edo nire lanpostuan) laguntzen dut semearengan edo alabarengan (edo ikastetxeko ikasleengan) autonomia pertsonala (etxeko esparruan zein lanbide-esparruan) sustatzen, berdintasunezko identitate bat eraikitzeko bidean aurrera egin ahal izan dadin	1	2	3	4
---	---	---	---	---

IKASTETXEKO ESPAZIOAK ETA JARDUERA OSAGARRIAK ETA ESKOLAZ KANPOKOAK				
33. Ikastetxea gune segurua eta eroso da, eta modu osasungarrian bizitzen eta elkarrekin bizitzen da bertan, genero-bereizketarik egin gabe.	1	2	3	4
34. Mutilek ez dituzte patioko lekurik onenak hartzen.	1	2	3	4
35. Mutilek eta neskek elkarrekin egiten dituzte patioko jokoak edo ekintzak.	1	2	3	4
36. Hitz egiteko, atsedean hartzeko edo beste joko mota batzuk egiteko eremuak planifikatu dira.	1	2	3	4
37. Patioan antolatutako eta egindako jarduerak ikasleekin ebaluatzen dira.	1	2	3	4
38. Ikasgelak eta espazio komunak (jantokiak, liburutegia, ordenagailu-gelak, gimnasioa, laborategiak eta abar) genero-berdintasuneko irizpideetan oinarrituta antolatuta daude.	1	2	3	4
39. Ikastetxeak eskaintzen dituen jarduera osagarri guztiak mutilek eta neskek egin ahal izateko pentsatuta daude.	1	2	3	4
40. Ikastetxeak eskaintzen dituen eskolaz kanpoko jarduera guztiak mutilek eta neskek egin ahal izateko pentsatuta daude.	1	2	3	4
41. Ikastetxeko jaialdi eta ospakizunetan, generoagatiko diskriminazioa eta estereotipoak saihesten dira (mozorroak, abestiak, rolak eta abar).	1	2	3	4
42. Familian (edo nire lanpostuan) laguntzen dut nire semeak edo alabak (edo ikastetxeko ikasleek) espazioei eta eskolaz kanpoko jarduerari eta jarduera osagarriari erabilera ez-sexista eman diezaien, berdintasunezko identitate bat eraikitzeko bidean aurrera egin ahal izan dadin.	1	2	3	4

Talde txikietan, item bakoitzeko erantzunak adosten saiatuko gara. Erantzunak argudiatu ondoren, akordioak lortzen saiatuko gara.

Itemetan lortutako puntuazioak aztertzea eta ondorengo taulan sailkatzea:

AUTONOMIA PERTSONALA ETA INDEPENDENTZIA EKONOMIKOA IKASTETXEKO ESPAZIOAK ETA JARDUERA OSAGARRIAK ETA ESKOLAZ KANPOKOAK		
	Zenbakiak	Arrazoiak
Indarguneak, jardunbide egokiak (4 puntu lortu dituzten itemak).		
Ahuleziak edo hobetzeko egoerak (puntu 1 edo 2 lortu dituzten itemak).		

Gure ikastetxean detektatutako indarguneak eta ahuleziak ikusi ondoren, hobetu behar diren eta epe laburrean lantzeko aukera gehien eskaintzen dituzten elementuak finkatuko ditugu. Kontuan izan behar dugu indarguneak ere hobetu daitezkeela. Horrela, beraz, hobetzeko premia horiek datozen ikasturteetan lortzeko moduko helburu gisa formulatuko ditugu.

AUTONOMIA PERTSONALA ETA INDEPENDENTZIA EKONOMIKOA IKASTETXEKO ESPAZIOAK ETA JARDUERA OSAGARRIAK ETA ESKOLAZ KANPOKOAK	
HOBETZEKO PREMIAK	LORTU BEHARREKO HELBURUAK